

CO2 ERREDUZITZAILEA



Gure proposamena makina bat da, makina hau airea xurgatzen du CO₂-a airetik banatzeko eta CO₂ purua filtro batzuen bidez lortzeko. Airea xurgatzeko, haizagailu bat du barrualdean.

Makina berritzailea da eta airearen kalitatea hobetzen du. Lurraren situazio momentuz okerrera doa, eta zientzialariek ideia berriak pentsatzen ari dira hau aldatzeko. Gaur egun, CO₂ gehiegi isurtzen dugu, horren ondorio garrantzitsuenetariko bat aldaketa klimatikoa da. Hainbat gauza sortu dira hau aldatu ahal izateko baina oraindik ez da egon tramankulurik lurraren posizioa benetan hobetu egin duena. Guk makina hau asmatu dugu, munduaren egoera hobetu nahi dugulako eta etorkizunerako lur planetan bizi ahal izatea nahi dugulako. Makina honekin, autoak, hegazkinak, fabrikak, etab. askatzen dituzten CO₂-ak xurgatzea ahal izango genuke. Horrela Lurraren kontaminazioa murriztuko genuke. Hasieran, makinaren eredu batzuk instalatuko ditugu bere funtzionamendua frogatzeko. Denbora aurrera joan ahala, hobekuntzak egingo ditugu eta makina sendoagoa eta merkeagoa lortuko dugu.